

Laburpen Exekutiboa

Polizia kontrolatzeko mekanismo independenteak

Analisi konparatiboa eta
zenbait proposamen
Estatu espainiarrean
eraginkortasunez ezartzeko

Laburpen Exekutiboa

Polizia kontrolatzeko mekanismo independenteak

Analisi konparatiboa eta
zenbait proposamen
Estatu espainiarrean
eraginkortasunez ezartzeko

Egileak: Anja Bienert, Neil Corney, Jorge del Cura Antón, GEBehatokia, Matthew McEvoy, Josep Noales Tintoré, Pierre-Arnaud Perrouy, Irene Urango Montilla, Joaquín Urías Martínez eta Patrick G. Watson.

Laguntzaile eta aholkulariak: Anja Bienert, Jorge del Cura Antón, Anaïs Franquesa Griso, Iñaki Lasagabaster Herrarte, Eduard Martínez Guaita, Youssef M. Ouled eta Laura Pego.

Koordinazioa: Irene Urango Montilla.

Edizioa: Judith Gracia Castells.

Itzultzailea: Nahia Rikarte Urzainki.

Azalaren diseinua, maketazioa eta infografiak: Ariadna Bertran Font.

Koordinazio grafikoa: Borja Lozano.

Inprimaketa: Foli Verd. Cooperativa d'Arts Gràfiques.

Laguntzaileak:



Argitalpen hau Gizarte Eskubide, Kontsumo eta 2030 Agendarako Ministerioaren laguntza finantzarioarekin egin da. Txosten honen edukia Iridia eta Novact-en erantzukizunpekoa da eskusiban, eta ez du Ministerioaren iritzia islatzen halabeharrez.







Zergatik da beharrezkoa txosten hau?

Dokumentu honekin itxiko da Irídia eta Novact erakundeek batera sustatu duten Estatu espainiarreko polizia kidegoen gardentasunari eta kontu emateari buruzko hiru argitalpenen seriea. Izen bereko diagnostiko bat (*Estatu espainiarreko polizia kidegoen gardentasuna eta kontu ematea*, 2022) eta arlo horretako nazioarteko estandarrak goratzeko politika publikoko ibilbide orri bat (*Estatu Espainoleko polizia kidegoen gardentasuna eta kontuak emateko mekanismoak hobetu eta modernizatzeko ekintza plana*, 2024) egin ondoren, txosten honek, **Polizia kontrolatzeko mekanismo independenteak** (2025), Erresuma Batua, Belgika eta Kanadaren moduko herrialdeetan eta, eskualde mailan, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere **polizia ikertzeko zenbait organo independenteren arteko analisi konparatibo bat** azaltzen du. Helburua da **ikaskuntzak jaso eta proposamen zehatz bat osatzea horrelako erakunde bat ezarri ahal izateko Estatu osoan.**

Giza eskubideen errespetuan aurrera egiteko borondatez, txosten honek sozietate zibil antolatuaeren apustua osatzen du, eztabaidarako tresnak eskaini eta **Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) erdiesteko** ekarpen irmoa egitearen aldeko apustua, hain zuzen. Agenda horren arabera, Estatuek erakunde publiko sendoago, gardenago eta

giza eskubideekiko begirunetsuagoak finkatu behar dituzte, pertsona guztien justiziarako sarbide eraginkorra bermatzeaz gain (16. helburua). Era berean, biktimek dituzten egia ezagutzeko, justiziarako, erreparazio integralerako eskubideak eta ez errepikatzeko bermeak sustatzen ere lagundu nahi du txostenak.

Polizia jarduketen gardentasuna eta kontu ematea ezinbesteko alderdiak dira poliziaren eginkizunen garapenerako. **Giza eskubideak urratzen direnean, ikerketa sakona egiten ez bada eta erantzuleak zigortzen ez badira, zigorgabetasuna sortzen da.** Horrek, biktimen babesgabezia eragiteaz gain, polizia erakundeekiko mesfidantza areagotzen du, eta horregatik izan beharko lukete erakunde horiek jokabide horiek desagerraraztearen lehen interesdunak. Era berean, instantzia judizialenganako mesfidantza ere sortzen du, haiek baitira jokabideok ikertu eta errepika ez daitezen kondenatu behar dituztenak.

Helburua da kontuak emateko egungo sistemak (horren barne direla barne arazoetako sailak, arartekoak eta, batez ere, justizia sistema) zein hutsune eta muga dituen ulertzea eta ezagutzea, eta gertakari larri horien erreparazio eta ez errepikapenean aurrera egiteko behar diren neurriak txertatzea. **Ondorioz, kanpoko mekanismo independente bat sortu eta garatzeak sistema integral hori osatzeko balioko du,** polizia kidegoaren analisi tekniko, espezializatu eta independenteak eskaintzeko, betiere kontuan hartuta polizia kidegoa dela prozesuko alderdietako bat eta, zehatzago, alderdi salatua. Horregatik, logikoa dirudi gizarteak inpartzialtasuna eta independentzia eskatzea frogak baloratu eta aurkezteko orduan, prozedura judizialaren funtsezko oinarria izanik.

Tortura kasuak ikertzen eta auzitan jartzen eskarmentu handia duten sozietate zibileko erakundeak garen heinean, erronkak non dauden aztertzen dugu eta aldaketak proposatzen ditugu, hartara zuzenbide estatutako eta demokraziarako ezinbestekoak diren instituzioak hobetzen lagunduz. Argitalpen honen xedea da, beraz, politika publikoko tresnak eta ildoak sortzea, poliziaren jarduketak ikertzeko kanpoko organo independente bat sortzeko beharrari buruzko politikarien, erakundeen eta herritarren eztabaida errazteko, betiere uneko esperientziak abiapuntu hartuta eta gaiari buruzko ezagutza teknikoa eskaintzen duten zenbait diziplinatako adituen ekarpenak txertatuta. Gauzak horrela, lan hau ez zen posible izango pertsona horien parte hartze eta helburu horretarako ahaleginik gabe.



Zer biltzen du txostenak?

Ikerketak premisa argia dauka: poliziaren jarduketak ikertzeko kanpoko organo independente bat sortzea ez da asmakuntza berria eta ez da irreala ere. Irismen luzeko nazioarteko esperientzia eta bermea ditu atzean, eta baita giza eskubideen erakunde eta eragindako pertsonen ahotsa eta analisisa ere. Azken hauek hamarkadak daramatzate salatzen kontuak emateko gaur egungo sistemak ez duela funtzionatzen eta ez dela nahikoa kasu hauen zigorgabetasunarekin amaitzeko eta eskubideen erabateko berme integrala ziurtatzeko.

Testuinguru horretan, poliziaren jarduketak ikertzeko organo independente bat sortzea ez da planteatzen, bere horretan, zigorgabetasunarekin amaitzeko behin betiko irtenbide moduan, baizik eta nazioarteko bermea duen tresna moduan, helburu horretarantz aurrera egiten lagunduko duena. Horretarako, ezinbestekoa da mandatu hori betetzeko konpromisoa hartzen duen borondate politikoa. Anja Bienertek, polizia eta giza eskubideen adituak, edizio honen hitzaurrean jaso duenez, gerta liteke zenbait elementuk mekanismoaren lana oztopatzea: eginkizunak betetzeko finantzaketa egokirik ez izatea, interferentzia eta oztopo politiko eta polizialak ikerketetan, giza baliabide nahikorik ez izatea, fitxategi edo instalazioetarako sarbiderik ez ematea edo sinesgarritasun falta herritarren begietara, besteak beste.

Horregatik aztertu da, hain zuzen, nazioarteko esperientzia ikerketan, horrelako mekanismoek nazioarteko (Ontario, Kanada) eta Europako (Belgika eta Erresuma Batua) mailan duten funtzionamenduaren analisi konparatiboa eginez, mekanismo bakoitzak dituen erronkak ezagutzeko. Helburu horrekin, giza eskubideen erakunde ezagunek eta hainbat lurraldetako adituek gauzatuko dute analisi hori, esperientzia horiek dituzten elementu erkideen multzoa oinarri hartuta.

Omega Research Foundation fundazioak, **Ingalaterra eta Galesko Polizia Jokabidearen Bulego Independenteari (IOPC)** dagokionez, planteatzen du bulego horrek bere lana egiteko zailtasunak aurkitzen dituela polizia kidegoen lankidetzarik eza dela eta, ikerketen iraupenaren ondorioz edo finantzaketa pixkanaka murriztuz doalako, lan karga etengabe gorantz doan arren. Aldiz, giza baliabideen aldetik, aipagarria da langileen heren batek baino gutxiagok lan egin duela polizian alde zurretik, eta zuzendari nagusiak ezin duela aurretiazko esperientziarik izan polizian. Ez da kontratatzen aktibo dagoen agenterik eta, ikuspuntu operatibotik, gobernuarekiko eta poliziarekiko independentea da. IOPCk gorabehera larrienak bakarrik ikertzen ditu bere kabuz (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 2. eta 3. artikulua), baina baditu bestelako kanalak gainerako ikerketak bideratzeko. Salaketa indibidualaz gain, arazo sistemikoak ere lantzen ditu lan tematikoaren bidez, hartara ikerketa sakonagoa behar duten patroik eta joerak identifikatuz, esaterako, arrazakeria edo diskriminazio kasuetan. Ikerketa horiek barne hartzen dituzte batzuetan politika edo legeria aldaketekin lotutako gomendioak, edo agenteen prestakuntza gehigarriaren ingurukoak, polizien jarduna eta kontu ematea hobetzeko xedez.

Bestalde, **Erresuma Batuan, Arma Ez Hain Hilgarrien Inplikazio Medikoei buruzko Aholku Batzorde Zientifikoak (SACMILL)** hain hilgarriak ez diren armen erabileraren inplikazio medikoei buruzko txosten independenteak argitaratzen ditu. Hala ere, jardunbide ona izan arren, txosten horietarako irisgarritasun publikoa oso mugatua da. Gainera, Erresuma Batuko poliziak, legez, ez du arma berriak ebaluatzeko betebeharririk. Arma sistema berri bat ebaluatzeko betekizun orokorra jardunbide egokien kode batean oinarritzen da, baina, kode horrek su arma guztiak eta hain hilgarriak ez diren armen eta munizio espezializatuen sorta bat barne hartu arren, ez ditu ekipamendu eta gailu guztiak estaltzen. Nabarmentzekoa da ere SACMILL batzordeak akordio bat izenpetu duela IOPCrekin kezkarriak diren erabilera eta gorabeherak etengabe ebaluatzeko. Horri esker, armen inpaktuaren eta horien ondorioen inguruko informazio esanguratsua partekatzen dute.

Ontarioko (Kanada) Ikerketa Berezien Unitateari (SIU) dagokionez, Patrick G. Watson Torontoko Unibertsitateko ikerlariak bereziki azpimarratzen du lege propio baten bidez sortu zela eta zenbait ikaskuntza atera direla hortik. Besteak beste: **i)** mandatu argia ezartzearen garrantzia, “lesio larria” kontzeptuaren definiziotik hasita, ikerketaren esparruan kasu honetan; **ii)** aurrekontu egokia esleituko dela bermatzea eta **iii)** eginkizunean interferentziak saihesteko autonomia politikoko neurriak ezartzea. Azken hori funtsezko elementua da herritarren konfiantza ziurtatzeko, eta Ontarion zenbait krisiren jatorria izan da, publikoki poliziaren alde agertzea izan baita joera politikoa. Langileen hautaketari dagokionez, SIU unitateko zuzendariak ezin du inolako lan esperientziarik izan polizian, eta langileak ere ezin dira aktibo dauden agenteak izan. Analisi horretatik ondorioztatzen da ere jardunean

ez dauden poliziekiko ikerketa eskumenak argitzearen garrantzia, eta baita erabakiak eta ondorioak herritarrei jakinarazteko komunikazio kanal eraginkorren beharra ere.

Hori da, hain zuzen ere, Pierre-Arnaud Perroutyk, **Belgikako** Ligue des Droits Humains erakundeko zuzendariak, **Poliziaren Zerbitzuak Kontrolatzeko Batzorde Iraunkorrari (Comité P)** dagokionez gehien azpimarratzen dituen puntuetako bat. Bere esanetan, hainbat organo publiko izateak argitasun falta eta eginkizunei buruzko nahasketa



sortzen ditu herritarrengan. Zentzu horretan, eragile, organo eta prozeduren konplexutasunak, alde batetik, eta poliziaren abusuen frogak aurkezteko zailtasunak, bestetik, poliziaren aurkako salaketa bat jartzea alferrik delako ideia sortzen

dute. Era berean, ikuspegi horrek zigorgabetasun sentimendua areagotzen du, sorgin gurpil bat sortuz. Zuzendariak ohartarazten du ere ikerketa departamentuko kide gehienak polizia agente ohiak direla, edo bost urtez bertan lanean aritu ondoren beren komisariara itzuliko diren agenteak; beraz, Batzordeari emandako ikerketa ahalmenak ez datoz bat bere ibilbidearekin, salaketa gehienak barne gainbegiraketa organoei bideratzen dizkio eta. Hortaz, Batzordea txosten orokor eta tematikoak idazteaz arduratzen da gehienbat, eta akats estrukturalen zantzuak dituzten kasuak bakarrik ikertzen ditu *motu*

proprio. Comité P batzorde horretaz gain, beste ikerketa organo batzuk ere badira, hala nola UNIA, diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurka borrokatzearen arduraduna eta polizia ikertzeko eskumenak ere badituena.

Estatu espainiarraren kasuan, zenbait ikaskuntza atera daitezke **Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen** esperientziazatik (2. kapitulua). Lurralde horretako gatazka politiko eta armatuak polizia jardunaren izaera eta herritarren pertzepzioa baldintzatu egin ditu. Estatuan aitzindaria izan den organo horren erronka iraunkorren artean, aipagarriak dira ofizioz esku hartzeko duen gaitasun mugatua (heriotza edo lesio larrien kasuan bakarrik) eta kexa partikularrak izapidetzeko ezintasuna. Gainerako kasuetan, Herrizaingoko sailburua da batzordea aktibatzen duena “eskubide urraketak” egon direnean edo “herritarren konfiantzan izango duten inpaktuari buruzko kezka larria dagoen kasuetan”. Hala ere, kontzeptu horiek, Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiak (Behatokia) ohartarazten duenez, subjektiboak dira. Horregatik salatzen dute batzordearen independentziarik eza, polizia egiturarekin eta gobernuarekin lotura duelako; izan ere, batzordekideen artean polizia kidegoetako bi ordezkari daude. Halaber, neurri zuzentzaile, prebentibo edo hobekuntza neurriak ezartzeko gomendioak egiteko ahalmena izan arren, ikusi da gomendio horiek hainbat ebazpenetan errepikatu direla, baina ez dela neurrien ezarpenaren ebaluaziorik egin. Biktimen erreparazioa edo biktimek prozesuan parte hartzea ere ez dira aurreikusi.

Sozietate zibilean, Estatu osorako proposamen bat zehazteko hainbat ahalegin errepikatu dira azken urteotan, lan esparru eta lurralde ezberdinetatik datozen pertsona eta erakundeen diziplina arteko lan artikulatuaren

bidez. Proposamena, 3.1 atalean luze eta zabal jaso dena, Estatuari poliziaren ustezko tratu txarrak ikertzeko organo independente bat sortzeko eskatzen dioten nazioarteko ebazpenak aplikatzearen emaitza da. Gogoeten artean, argi eta garbi nabarmentzen da lege propio bat eta polizia egiturekiko eta gobernuaren eraginekiko erabat independentea den esparru administratibo bat sustatzeko beharra, kasu larrienak ikertzeko eta gainerako ustezko jardunbide okerrak sistematizatu eta erregistratzeko agindu argiarekin, hartara patroiak eta hobetzeko aukerak identifikatu ahal izateko. Era berean, aurrekontu egokia behar du agindu hori betetzeko, bai eta armamentua aztertzeko eginkizunak ere, osasunerako eskubidean eta funtsezko eskubideen baliatzean izan dezakeen inpaktuari dagokionez. Organo independente espezializatua den heinean, oso garrantzitsua da gomendioak egin ahal izatea eta gomendio horien jarraipena egitea, zigor arloko ikerketetan peritu txostenak egiteaz gain.

Organo independente hauek nola funtzionatzen ikusita, argi dago, oraindik ere funtsaren inguruko eztabaidak beharrezkoak izan arren, **erabat bideragarriak direla araudiaren eta esparru judizialaren aldetik**. Euskal Autonomia Erkidegoko adibideak (oraindik gainditu ez diren erronka guztiekin ere) frogatzen du horrelako mekanismoak abian jar daitezkeela Estatu osoan ere. Joaquín Urías Konstituzio Auzitegiko letradu ohiaren azalpenaren arabera (3.2 atala), agerikoa da araudiaren aldetik sortzen diren erronketako bat dela mekanismoaren eraginpean geldituko ziren polizia kidegoen (gutxienez ere tokikoak, erkidegokoak eta estatukoak) espezifikotasuna, horrek baldintzatuko bailituzke egokitu beharreko arauak, gainjartzeak eta kontraesanak saihesteko eta lurralde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzeko. Sevillako Unibertsitateko zuzenbide konstituzionaleko irakaslea ere baden Joaquín

Urriasek azpimarratzen du, bestalde, erregelamendu izaera duen barne estatutu propio bat garatu behar dela, metodoak eta prozedurak zehaztasunez arautzen dituenak, eta Segurtasun Indar eta Kidegoen diziplina erregelamenduak aldatu behar direla, beste neurri batzuen artean.

Bateragarritasun judizialari dagokionez, Josep Noales instrukzioko epaile eta Ágora Judicial erakundeko kideak zalantzarik gabe esaten du ez dagoela *non bis in idem* printzipioa urratzeko arriskurik; izan ere, planteatzen dena da polizia jardun jakin batekin lotutako alderdi teknikoak behatu eta aztertzeko ardura (3.3 atala) izango lukeen organo bat. Bere ustez, izaera zientifikoko zeharkako frogabide bat izango litzateke, epaileari aukera emango diona beste frogabide batzuen bitartez prozesuan aurkeztu diren gertakariak ikuspuntu teknikitik baloratu eta aztertzeko. Zentzu horretan, gogorarazten du, gaur egun ere, indarraren gehiegizko erabileragatiko salaketa bat jasotzen denean, instrukzioko epaileak txosten bat eskatzen dio, lehenengo eginbide modura, polizia kidegoari, baita ikertzen ari den agentearena ez diren beste unitate batzuei ere, batzuetan. Hala ere, bere aburuz, horrek ez ditu inoiz lortuko proposatzen ari denaren moduko organo batek izango lituzkeen inpartzialtasun eta independentzia mailak. Ohartarazten duenez, fenomenoaren espezialitatea dela eta, mekanismo espezializatu bat behar da ere, eta argudio horrek baztertu egingo lituzke egungo arartekoak, oso mandatu zabalak dituztelako. Ikerketa eginkizunez gain, Noalesek mekanismoak egingo lituzkeen analisi eta azterketen izaera akademikoa goraipatzen du, horrek hobekuntza proposamenak, gomendioak eta prestakuntzak sortuko lituzke eta.

Orrialde hauetan jaso diren kontzeptu eta araudien arteko ekarpenak eztabaidarako elementu garrantzitsuak izan arren, egia da oraindik ere **funtsezko alderdieten sakondu behar dela, esaterako**, polizia kidegoek egindako eskubide urraketek **eragindako pertsonen erreparazioan**. Ontarioko SIU unitatearen adibideak gaingitu ez diren erronkak islatzen ditu; berez, biktimari laguntzeko zerbitzuetarako sarbidea delituaren frogaketa judizialaren mende dago. Deliturik gabe, ez dago biktimarik eta, ondorioz, ezta erreparazio aukerarik ere. Gaur egun identifikatu diren ikertzeko zailtasunak direla eta, interesgarria izango litzateke aztertzea zer egin dezakeen mekanismoak (eta biktima erdigunean kokatzearen printzipioak) instituzioek biktimizazioan duten erantzukizuna argitzeko, erator litezkeen (edo ez) zigor arloko erantzukizunetatik haratago joanda. Eztabaida horren beste faktore garrantzitsu bat da justizia errestitutiboa aitortu eta aztertzea, horrelako kasuak ebazteko eta erreparatzeko beste aukera bat den heinean, arreta eragindako kaltean eta ez delituan jarrita.

Azkenik, giza eskubideen erakundeek oso argi dute **herritarrek funtsezko eginkizuna izaten jarraitu behar dutela instituzioei kontuak emateko aldarrikapenean**. Mekanismo baten sorrerak ez du inola ere ordezkatu behar sozietate zibilak duen gaitasun kritiko eta konstruktiboa, bere antolamendu forma guztietan. Hala ere, iritsi da garaia instituzioek kasu hauek aitortu, artatu eta erantzutearen ardura hartzeko. Bakoitzak, bere espazio eta historia propioetatik, bultzatzen jarraituko du, giza eskubideen urraketa larrien egia ezagutzeko, justiziarako eta erreparaziorako eskubideak eta ez erreparatzeko bermeak Estatuko lurralde guztietan errealitate bat izan daitezen.

Amaierako hausnarketak

Kontaezinak dira poliziak bere ekintzen eta jokabideen kontuak ematea bermatzeko sistema bat ezartzen saiatu diren adituak, giza eskubideen aktibistak, sozietate zibileko erakundeak, nazioarteko organoak eta erreforma polizialari buruzko batzordeak, munduko herrialde ugari. Zenbaitek aurrerapen nabarmenak lortu dituzten arren, edo nolabaiteko arrakasta behintzat, gaur egun, kanpoko gainbegiratze mekanismo gehienek erronka handiak dituzte oraindik gainditzeke. Mekanismo hauek arazo ugari dituzte polizia kontuak ematera behartzeko, eta arazo horiek herrialdearen arabera aldatzen dira. Anja Bienert polizia eta giza eskubideen adituaren aburuz, hauek dira zailtasun nagusiak:

- 1. Mandatu ahula edo eskasa eta ikertzeko ahalmenik eza:** oinarri juridiko nahasia, instituzioek duten kooperatzeko borondatearen mende egotea, ofizioz jarduteko ezintasuna, etab.
- 2. Independentziarik eza eta interferentzia politikoen mende egotea:** sarritan, izendapen prozesu politizatuen bidez, poliziaren ildo exekutibo berarekin edo poliziaren lankidetzaren mende egonda ikerketak egiteko, edo poliziarekin gehiegizko lotura duten baliabideen mende (adib. agente ohiak edo aurrerago polizian lan egitera itzuliko diren agenteak).

3. **Finantzaketarik eta giza baliabiderik eza**, herrialdearen tamaina eta arazoen magnitudea kontuan hartuta. Denborarekin, aurrekontuen arloko erabakiak xede politikoekin erabili ohi dira, eta horrek *de facto* mugatzen du mekanismoak duen bere lana egiteko gaitasuna.
4. **Gardentasunik eza**: ikerketa prozedura zehaztugabeak, erantzukizunen banaketa ez argia estatuko beste erakunde edo organo batzuekiko, eta komunikazio eta erantzun eskasak emaitzak biktimei eta herritarrei jakinarazteko.
5. **Pisurik eta sinesgarritasunik eza** poliziari edo beste agintaritza edo erakunde eskudunei zuzendutako ondorio eta gomendioei dagokienez.
6. **Poliziak nahita egindako oztopatzeak**.
7. **Herritarren aldetiko konfiantzarik eza**, erantzuteko gaitasuna, arrakasta kasuak eta gardentasuna mugatuak direlako.

Argitalpen honetako artikuluetan arazo horietako asko islatu dira, baina garrantzitsuena da arazo horiek bi jatorri nagusi dituztela: alde batetik, **poliziak ez du ikuskapenik nahi eta arbuiatu egiten ditu oro har mekanismo hauek**. Bestalde, **gobernuak ez du horrelako sistema bat ezartzeko borondate politikorik**, batzuetan, poliziarekiko leialtasun desagoki baten ondorioz, bestetan, polizia bere xede politikoetarako (bidegabe) erabiltzen duelako. Nolanahi ere, ongi ulertu behar da jarrera horiek ez diotela inolako mesederik egiten gizarteari edo polizia organoei ere.


Poliziak, eraginkortasunez eta segurtasunez jarduteko, biztanleria osoaren konfiantza behar du. Konfiantza hori lortzeko ezinbestekoa da, lehenik, poliziak legea eta giza eskubideak erabat errespetatzea, inolako diskriminazio edo arbitrariotasunik gabe. Polizia agenteek legea urratuz edo modu arbitrarioan jarduten dutenean edo biztanleriaren sektore jakinak diskriminatzen dituztenean, horrek inpaktu handia sortzen du herritarren poliziarekiko konfiantzan, edo zenbait talderen konfiantzan behintzat. Neurri batean, gainbegiratzeko sistema sendo batekin konpondu daiteke hori, agente guztiak horrelako egintzen erantzukizuna hartzea behartzen dituen. Aldiz, horrelako sistema batek huts egiten badu edo, besterik gabe, horrelako sistemarik ez badago, jendearen konfiantza are gehiago kaltetuko da eta ia ezinezkoa izango da hori berreskuratzea.

Kanpoko kontrol eta zaintza baten mende egoteari uko egiten dion ordena mantentzeko organo batek bere interesen kontra jotzen du. Horrela, poliziak ez du kanpoko ikuspeirik izango, **eta kanpoko ikuspegi hori ezinbestekoa da polizia kidegoek ustez herritarrei ematen dieten zerbitzua etengabe hobetu ahal izateko.** Jardunbide okerren kasuan kidegoko kideak ondorio kaltegarrietatik babestuta daudelako sentipena ere indartzen du.


Azkenik, gorago azaldu diren ahulguneak konponduta ere, polizia **gainbegiratzeko mekanismo bat elementu bat besterik ez da (oso garrantzitsua izan arren)** gainbegiratzeko, ikuskapen, kontrol eta ikaskuntza metatuen **sistema integral bat osatu behar duten elementu ugarien artean.** Hau da, fiskaltza eta botere judizial funtzional eta independenteak behar dira, eta legea errespetatzen duen organo diziplinatu bat mantentzearen beharra ulertzen duten barne arazoetako sailak, erroreetatik ikasi eta hobetzeko beharrak identifikatzeko prest daudenak,

bai eta goi mailako agintarien lidergo eta erantzukizun eraginkorrak ere, **polizia agenteen jardunbide okerrak inola ere onartzen ez dituen politika** batekin, ikuskaritza eraginkor eta kontrol zorrotzarekin, eta kanpoko gainbegiratze mekanismoekiko lankidetzaz eraginkorrarekin.





Espainiako Estatuko polizia erantzukizunaren sistema integrean mekanismo independente bat integratzeko proposamena



Lotutako **interese**ko **argitalpen**ak

Espainiako Estatuko polizia- indarren gardentasuna eta erantzukizuna



**Espainiako Estatuko polizia-
kidegoen gardentasun eta kontu-
emate mekanismoak hobetzeko
eta modernizatzeko ekintza-plana**

EKINTZA PLANA

Espainiako Estatuko polizia
kidegoen gardentasuna eta kontuak
emateko mekanismoak hobetu eta
modernizatzeko





Txosten osoa

